

## **2011ko EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

2011ko uztailaren 27ko EHAAn, Osakidetza Zuzendari Nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituena.

2011ko EPE webean, 2012ko azaroaren 7an, hurrengo kategorietako oposaketa-fasea gainditu dutenen zerrenden ebapenak argitaratu dira:

ERIZAINA.

OSASUN MENTALEKO ERIZAINA

LAN-OSASUNEKO ERIZAINA.

Azken ebazpen honetan azaltzen diren **gainditutakoek** 10 egun baliouduneko epea izango dute, hau da, **2012ko azaroaren 8etik azaroaren 19ra**, dagozkien **betekizun eta merituak alegatzeko**, gaindituen zerrenda onartzen duen ebazpenean eta oinarri orokorretako 12.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Era berean, **hauta-proben emaitzei buruzko informazio eguneratua** argitaratu da, kalifikazio-epaimahaiak interesatuek aurkeztutako erreklamazioak errebisatu ondoren: erantzun-txantilo eguneratua eta emaitza eguneratuak.

**2011ko EPEko kontsulta pertsonalizatu**en bidez, gainditutakoek **Osakidetza dituen datuak** ikusi ahal izango dituzte, ondokoei dagokienez: izan beharreko titulazioa, egindako zerbitzuak, prestakuntza, euskerako hizkuntza eskakizunak,...

**Betekizunak eta merituak alegatzeko prozesua** errazteko, hurrengo **informazio eta dokumentazioa** argitaratu da 2011ko EPEko oharren atalean:

- **Prozeduraren laburpen-koadroa**, betekizun eta meritu ezberdinak egiaztatze modua adierazten duena.
- Betekizunak eta merituak alegatu eta mekanizatzeko **jarraibideak**. Arreta berezia jarri behar zaio izan beharreko titulazio akademikoaren atala betetzeari.
- **Betekizunak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentua**, gainditutako izangai guztiek bete, erregistratu eta epearen barruan entregatu beharko dutena.

**Erreklamazio-eredua**, interesatuek Osakidetza eskainitako datuen aldaketa eskatzeko, beraiekin ados ez egoteagatik. Beste Administrazio Publikoetako esperientziari dagokionez, egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria entregatu beharko da, edo notarioak egindako kopia kautoa.

**Osakidetza egindako zerbitzuak beste kategorialanpostu funtzional batera lotzeko dokumentua**, oinarri orokorretako 13.1.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan.

**Egindako zerbitzuak egiaztatze eredu**a, beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak alegatzen diren kasuetan.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 7an.